*EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA*
*INSTITUTO VASCO DE LA MUJER*

| PROGRAMA | PROGRAMA |
|---|---|
| 3223 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA | 3223 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER |
| **ARDURADUNA** | **RESPONSABLE** |
| 47 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA | 47 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER |
| EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA | DIRECTORA DE EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER |

| HELBURUA | OBJETIVO |
|---|---|
| 1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEA APLIKATZEA SUSTATZEA, ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOEN PLANGINTZA EGITEA ETA HORIEK GAUZATZEA BULTZATZEA | 1. PROMOVER LA APLICACIÓN DE LA LEY 4/2005 DE 18 DE FEBRERO PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES E IMPULSAR LA PLANIFICACIÓN Y EL DESARROLLO DE POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI |
| 2. BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOAK EBALUATZEA EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOAN | 2. EVALUACIÓN DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI |
| 3. KOORDINAZIOA BULTZATZEA EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOAN BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN | 3. IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI |
| 4. EAE-KO BOTERE PUBLIKOEKIN LANKIDETZAN ARITZEA ETA EKINTZAK BURUTZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNAREN HELBURUA LANTZEKO | 4. REALIZAR ACTUACIONES Y COLABORAR CON LOS PODERES PÚBLICOS VASCOS PARA EL DESARROLLO DEL OBJETIVO DE IGUALDAD EN LAS POLÍTICAS PÚBLICAS |
| 5. EMAKUMEEN PARTE-HARTZE SOZIO-POLITIKOA SENDOTZEA | 5. FORTALECER LA PARTICIPACIÓN SOCIO-POLÍTICA DE LAS MUJERES |
| 6. ENPRESA ETA ENTITATE PRIBATUETAN BERDINTASUNA SUSTATZEA | 6. FOMENTAR LA IGUALDAD EN EMPRESAS Y ENTIDADES PRIVADAS |
| 7. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO KOMUNIKAZIOA, INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA | 7. COMUNICACIÓN, INFORMACIÓN Y SENSIBILIZACIÓN SOBRE LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES |
| 8. EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOAN HERRITARRAK DEFENDATZEA SEXU-ARRAZOIENGATIKO DISKRIMINAZIO-EGOEREN AURREAN, ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU-BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA SUSTATZEA | 8. DEFENSA DE LAS CIUDADANAS Y CIUDADANOS ANTE SITUACIONES DE DISCRIMINACIÓN POR RAZÓN DE SEXO Y DE PROMOCIÓN DEL CUMPLIMIENTO DEL PRINCIPIO DE IGUALDAD DE TRATO DE MUJERES Y HOMBRES EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI |
| 9. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZEA | 9. ATENDER A LAS MUJERES VICTIMAS DE VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES |
| 10. LANKIDETZAN ARITZEA BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUETAKO, ESTATUKO EDO NAZIOARTEKO ANTZEKO ERAKUNDEEKIN | 10. COLABORAR CON INSTITUCIONES Y ORGANISMOS ANÁLOGOS DE OTRAS COMUNIDADES AUTÓNOMAS, DEL ESTADO Y DE LA COMUNIDAD INTERNACIONAL |

*EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA*
*INSTITUTO VASCO DE LA MUJER*

BETETZE MAILA

1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEA APLIKATZEA SUSTATZEA, ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOEN PLANGINTZA EGITEA ETA HORIEK GAUZATZEA BULTZATZEA

**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen lege-garapenarekin** lotuta, jarduketa hauek egin ditugu:

Azaroaren 8ko 424/1994 Dekretua aldatzeko izapideak egin ditugu. Dekretu horren bidez, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako Lankidetza Erakundearen figura sortu zen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 41. artikulua betetzeko eta garatzeko.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren izapideak egin ditugu.

BEGIRA publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordearen ekainaren 11ko 360/2013 Dekretua izapidetu dugu.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2013ko abuztuaren 9ko Ebazpena izapidetu dugu, BEGIRA publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordeko kideak izendatzen dituena.

X. Legegintzaldirako **Emakunderen Zuzendaritza Kontseilua** osatu dugu. Hiru ohiko lan-saio egin ditu, lan-dokumentu eta txosten hauek aurkezteko eta, hala badagokio, onartzeko:

Emakunderen 2012ko jarduera-memoria.

EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifren Txostena (2012).

EAEko botere publikoek 2010-2011 urteetan Berdintasunerako V. Plana garatzeko gauzatutako jarduerei buruzko jarraipen-txostena.

Emakunderen egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dekretua aldatzeko dekretu-proiektua.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana.

Emakundeko zuzendariak hiru **agerraldi** egin ditu **Eusko Legebiltzarrean**, honako hauek azaltzeko:

Emakunderen jarduera-ildo orokorrak.

Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren eta Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Unitatearen eginkizunak nola hartuko diren.

Emakumeen salerosketaren inguruko plana, hezkidetza-plana eta zaintza partekatua.

GRADO DE CUMPLIMIENTO

1. PROMOVER LA APLICACIÓN DE LA LEY 4/2005 DE 18 DE FEBRERO PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES E IMPULSAR LA PLANIFICACIÓN Y EL DESARROLLO DE POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

En relación con el **desarrollo normativo de la Ley para la Igualdad de mujeres y hombres,** se han realizado las siguientes actuaciones:

Se ha tramitado la modificación del Decreto 424/1994, de 8 de noviembre, por el que se creó la figura de “Entidad colaboradora en igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres” de conformidad y en desarrollo del artículo 41 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Se ha tramitado el Decreto de modificación del Decreto de estructura orgánica y funcional de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

Se ha tramitado el Decreto 360/2013, de 11 de junio, de la Comisión asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación / BEGIRA.

Se ha tramitado la Resolución de 9 de agosto de 2013, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se nombra a las personas miembro de la Comisión Asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación / BEGIRA / publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea.

Se ha constituido el **Consejo de Dirección de Emakunde** para la X Legislatura, que ha celebrado 3 sesiones ordinarias de trabajo para la presentación y, en su caso, aprobación de los siguientes documentos de trabajo e informes:

Memoria de actuación de Emakunde 2012.

Informe Cifras sobre la situación de mujeres y hombres en la CAE 2012.

Informe de seguimiento de la actuación de los poderes públicos vascos en desarrollo del V Plan para la Igualdad 2010-2011.

Proyecto de Decreto de modificación del Decreto de estructura orgánica y funcional de Emakunde.

VI Plan para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAE.

La Directora de Emakunde ha llevado a cabo 3 **comparecencias ante el Parlamento Vasco** para explicar:

Las líneas generales de actuación de Emakunde.

Cómo se asumirán las funciones de la Dirección de Atención de Violencia de Género y de la Unidad de acompañamiento a víctimas de violencia.

El plan de trata de mujeres, el plan de coeducación y la custodia compartida.

*EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA*
*INSTITUTO VASCO DE LA MUJER*

**EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana** egin dugu. Egiaztapen- eta kontsulta-prozesua gauzatu ostean, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu zuen abenduaren 30ean:

Hasierako egiaztapen-prozesuan hamabi bilera egin genituen berdintasunaren arloko hainbat organo eta antolakuntzekin eta emakume-elkarteekin.

Ekarpenak egiteko aukeraren berri emateko mailing zabala egin genuen, berdintasunaren arloan lan egiten duten egitura, zerbitzu eta elkarteak ez ezik, beste gizarte-eragile batzuk ere barne hartuta.

Sozializazio eta kontsulta publikoko prozesuan zehar parte hartzeko hainbat modu ezarri genituen (lantegiak, elkarrizketak, Twitter, ekarpenen online bilketa); horien bidez, 76 ekarpen jaso genituen.

Era berean, bost prestakuntza-saio egin genituen (erantzunkidetasun, hezkuntza, enplegu, indarkeria eta partaidetzari buruz), eragile sozial eta herritarrei Berdintasunerako VI. Plana hobeto zabaltzeko eta hura hobeto ulertzeko.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko **planifikazioa** bultzatu eta koordinatzeko, jarduketa hauek egin ditugu **foru- eta toki-administrazioei** dagokienez:

EAEko hainbat udalerri, koadrila eta mankomunitateri diru-laguntzak eman dizkiegu, emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko diagnostikoak egiteko eta/edo planak gauzatzeko eta ebaluatzeko beharrezkoa den laguntza teknikoa eskaini dezaten, barne hartuta indarkeriaren biktimak izan diren emakumeei arreta emateko protokoloak. 82 eskaera aurkeztu dira, eta 58 laguntza eman: 51 udalerriri, eta 7 mankomunitate, koadrila edo talderi.

Hainbat udali aholku eman diegu berdintasun-planak egiteko hasitako prozesuan. Materialak egiteko eta berrikusteko aholkuak ere eman ditugu.

Tokiko erakundeen hemezortzi planen eta mankomunitateen bi planen txostenak egin ditugu.

Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktimak izan diren emakumeei arreta emateko tokiko protokolo baten txostena egin dugu.

Administrazio publikoetan **berdintasun-politikak diseinatu eta ezartzen laguntzeko ikerketak eta baliabideak** sortu eta hedatzeari dagokienez:

Txosten eta ikerketa hauek egin ditugu:

EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrei buruzko urteko txostena (2013).

EAEko herritarren eguneroko portaerak bideratzen dituen balioen artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak zenbaterainoko garrantzia duen neurtzeko galdetegia egiteko proposamena.

Zaintza partekatuaren egoera eta horren inguruko ikuspegiak eta jarrerak. (Aurkezpen-jardunaldia 2013ko urriaren 7an egin zen, Bilbon.

Se ha elaborado el **VI Plan para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAE**, que tras su correspondiente proceso de contraste y consulta, el 30 de diciembre, fue finalmente aprobado por Consejo de Gobierno:

En el proceso de contraste inicial se realizaron 12 reuniones con diferentes órganos y estructuras en materia de igualdad y asociaciones de mujeres.

Se realizó un mailing extenso que incluía a las distintas estructuras, servicios y asociaciones que trabajan en el ámbito de la igualdad y otros agentes sociales de para informar sobre la posibilidad de realizar aportaciones.

A lo largo del proceso de socialización y consulta pública se articularon diversas vías de participación (talleres, entrevistas, twitter, recepción de aportaciones online) que tuvieron como resultado un total de 76 aportaciones.

Además, se han diseñado 5 píldoras formativas (corresponsabilidad, educación, empleo, violencia y participación) para mejorar la difusión y comprensión del VI Plan para la igualdad por parte de los diversos agentes sociales y la ciudadanía.

Para el impulso y la coordinación de la **planificación** en materia de igualdad de mujeres y hombres por lo que respecta a la **administración foral y local** se han realizado las siguientes actuaciones:

Se han concedido subvenciones a municipios, cuadrillas y mancomunidades de la CAE destinadas a proporcionar la asistencia técnica para la realización de diagnósticos y/o elaboración y evaluación de planes para la igualdad de mujeres y hombres, incluidos protocolos de atención a mujeres víctimas de violencia, habiéndose presentado 82 solicitudes y concedido 58 ayudas correspondientes a 51 municipios y 7 mancomunidades, cuadrillas o agrupaciones.

Se ha asesorado a varios ayuntamientos en el proceso iniciado para la elaboración de sus planes para la igualdad. Asimismo se ha asesorado en la elaboración y revisión de materiales.

Se han informado 18 planes de entidades locales y 2 planes de mancomunidades.

Se ha informado un protocolo local de atención a mujeres víctimas de maltrato doméstico y violencia sexual.

En cuanto a la creación y difusión de **estudios y recursos que apoyen el diseño y puesta en marcha de políticas de igualdad** en las administraciones públicas:

Se han realizado los siguientes informes y estudios:

Informe anual Cifras sobre la situación de las mujeres y los hombres en la CAE, 2013.

Propuesta para la construcción de un cuestionario que mida el grado en que la igualdad de mujeres y hombres constituye uno de los valores que orienta los comportamientos cotidianos de la ciudadanía vasca.

Estado de la cuestión, visiones y posicionamientos en torno a la custodia compartida. (Jornada de presentación 7 de Octubre de 2013 en Bilbao).

EAEko jolas eta jostailuen publizitate sexistaren inguruko egiturazko ikerketa.

Lan hauek argitaratu ditugu:

*Emakunderen 2012ko memoria*: bertsio elektroniko elebiduna Emakunderen webgunean aurki daiteke.

"*EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak (*2012)" txostena: bertsio elektroniko elebiduna Emakunderen webgunean aurki daiteke.

25. gidaliburua: Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako klausulak kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmen publikoetan: bertsio elektroniko elebiduna Emakunderen webgunean aurki daiteke.

32. txostena: *Emakume helduen ahalduntze-prozesuak Euskal Autonomia Erkidegoan*: 500 ale paperezko edizioan, argitalpen elebiduna eta bertsio elektroniko elebiduna Emakunderen webgunean aurki daitezke.

26. gidaliburua: *Generoaren araberako eraginaren txostenak:* bertsio elektroniko elebiduna Emakunderen webgunean aurki daiteke.

**Dokumentazio Zentroak** ohiko kudeaketa- eta mantentze-lanak egin ditu (funtsak eskuratu, katalogatu eta indexatu, aldizkarien harpidetzak kontrolatu eta horietako artikuluak kendu ... etab.), bai eta zentroak eskaintzen dituen zerbitzuen erabiltzaileei arreta ematearekin lotutakoak ere. Informazioa eman dugu, bibliografiari buruzko aholkuak eman ditugu, zerrenda bibliografikoak eta bideografikoak egin ditugu –nahierara–, eskatutako gaiei buruzko prentsa-berriak hautatu, liburuak eta bideoak maileguan utzi, eta abar.

Dokumentazio Zentroko dokumentu-funtseko lan ugari Internet bidez jendearen eskura jartzen jarraitu dugu.

Emakume sortu zenetik (1988. urtea) egindako kartel guztiak digitalizatu ditugu.

Eragile sozialek egindako Emakunderen materialen eskaerei aurre egiten jarraitu dugu, eta erakundearentzat interesgarriak ziren jardunaldiak, ikastaroak, azokak eta abar egiteko materialak banatu ditugu.

2. BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOAK EBALUATZEA EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOAN

Berdintasun-politikak garatzeko, botere publikoek egindakoari jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistemari eusten dion informatika-aplikazioa hobetu dugu.

V. Planaren garatzen parte hartu duten erakundeek 2012an gauzatutako jarduerei buruzko informazioa bildu dugu, eta 2013ko jardueren inguruko informazioa biltzeko epea ireki dugu.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana garatzeko, Eusko Jaurlaritzako sailek eta botere publikoek 2012ko ekitaldian egindako jarduerei jarraipena egiteko dokumentuak egin ditugu.

Estudio coyuntural sobre la publicidad sexista dirigida a juegos y juguetes en la CAE.

Se han publicado los siguientes trabajos:

Memoria Emakunde 2012» Versión electrónica bilingüe en la página web de Emakunde.

Informe « Cifras: Mujeres y Hombres en Euskadi 2012**»** Versión electrónica bilingüe en la página web de Emakunde.

Guía nº 25 sobre «Cláusulas para la igualdad de mujeres y hombres en contratos, subvenciones y convenios públicos» Versión electrónica bilingüe en la página web de Emakunde.

Informe nº 32 «los procesos de empoderamiento de las mujeres adultas en el País Vasco**»** 500 ejemplares en papel, edición bilingüe y versión electrónica bilingüe en la página web de Emakunde.

Guía nº 26 para la elaboración de « Informes de Impacto de género». Versión electrónica bilingüe en la página web de Emakunde.

El **Centro de Documentación** ha realizado las labores habituales de gestión y mantenimiento (adquisición de fondos, catalogación e indización, control de las suscripciones a revistas y vaciado de artículos de las mismas, etc.) y las derivadas de la atención a las personas usuarias de los diferentes servicios que el Centro ofrece. Respuesta a las demandas de información, asesoramiento bibliográfico y elaboración de listados bibliográficos y videográficos "a la carta", selección de noticias de prensa sobre temas solicitados y préstamo de libros y videos, etc.

Se ha mantenido el servicio de puesta a disposición del público, a través de Internet, de un número importante de obras de su fondo documental.

Se han digitalizado todos los carteles de Emakunde, desde su creación en 1988.

Se han atendido las peticiones de materiales elaborados por Emakunde solicitados por distintos agentes sociales y se han facilitado materiales para la realización de jornadas, cursos, ferias…etc. de interés para la institución.

2. EVALUACIÓN DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

Se han realizado mejoras en el aplicativo informático que soporta el sistema de seguimiento y evaluación de la actuación de los poderes públicos en desarrollo de las políticas de igualdad.

Se ha procedido a la recogida de información sobre las actuaciones llevadas a cabo en 2012 por el conjunto de las instituciones implicadas en el desarrollo del V Plan y se ha abierto el periodo para la recogida de información relativa a las actuaciones de 2013.

Se han elaborado los documentos de seguimiento de la actuación del conjunto de los poderes públicos y de los departamentos del Gobierno Vasco en desarrollo del V Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAE, correspondientes al ejercicio 2012.

Euskadiko berdintasun-politiken adierazle estrategikoak eraginkor bihurtzeko aginte-koadro baten proposamena egin dugu.

3. KOORDINAZIOA BULTZATZEA EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOAN BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN

**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeak** ohiko bilkura bat egin du. Batzordearen barruan, hari laguntza ematen dion Sailarteko Lantalde Teknikoaren lana bultzatu eta koordinatu da. Horretarako, bost bilera egin dira.

**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearen** esparruan, hiru lantalde tekniko hauek bultzatu eta koordinatu dira (bost bilera egin dira guztira): generoaren araberako eraginaren ebaluazioak egiteko eta aplikatzeko irizpideak, hezkuntzaren alorrean berdintasunaren alde elkarlanean aritzeko neurriak; sektore publikoko hitzarmen, diru-laguntza eta kontratazioetan berdintasun-neurriak aplikatzeko irizpideak eta tresnak. Azken taldeak bultzatuta, sentsibilizazio-jardunaldi bat eta gidaliburu bat egin ditugu, gaiaren inguruko informazio ugari duen webgune espezifikoa sortu, eta euskal administrazio publikoetako langileentzako aholkularitza-zerbitzu espezializatua ezarri.

**Berdinsarea-Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalerrien Sarea** abiarazteko Emakundek eta Eudelek 2005ean sinatu zuten hitzarmena berritu dugu. Horren bidez:

Berdintasunerako politikak bultzatzeko ardura duten udaleko politikari eta teknikariekin lan egin dugu.

Berdinsarearekin bat egiteko udalerrien eskaerak aztertu eta balioztatu ditugu. Zehazki, Sondika eta Zamudio sareko kide bihurtu dira. Hala, 59 udalerrik osatzen dute sarea.

Beldur Barik programa koordinatu eta kudeatu dugu, eta hura diseinatzeko, ezartzeko eta jarraipena egiteko batzorde eta lan-saioetan parte hartu dugu, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguneko (azaroak 25) kanpainaren barruan. 2013ko Beldur Barik Topaketan eta sari-banaketan izan gara.

Honako hauetan parte hartu dugu: etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimak diren emakumeei arreta emateko tokiko protokoloei buruzko batzordearen bileretan eta osoko bilkuretan, Virginia Woolf Basqueskolaren 2013ko programazioa aurkezteko jardunaldian, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko ordenantzen garapenean eta berdintasun-eragileentzako prestakuntza-ekintzako programan.

Biztanle gutxi dituzten udalerrientzako dinamizazio- eta aholkularitza-zerbitzua babesteko eta finantzatzeko Eudelekin dugun lankidetza-hitzarmena berritu dugu, eta jarduketen gauzatzearen segimendua egin.

Se ha elaborado una propuesta de cuadro de mando para la operativización de los indicadores estratégicos de las políticas de igualdad en el País Vasco.

3. IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

La **Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres** celebró una sesión ordinaria. En el marco de la comisión, se ha impulsado y coordinado el trabajo del Grupo Técnico Interdepartamental (GTI) de apoyo a la comisión a través de 5 reuniones.

En el marco de la **Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres**, se han impulsado y coordinado los 3 grupos técnicos de trabajo (GTT) que a continuación se mencionan (en total se han realizado 5 sesiones): criterios para la elaboración y aplicación de las evaluaciones de impacto en función del género; medidas para un trabajo conjunto en pro de la igualdad en el ámbito educativo; y criterios e instrumentos para la aplicación de medidas de igualdad en los convenios, subvenciones y en la contratación del sector público. Promovido por este último grupo, se ha realizado una jornada de sensibilización, se ha elaborado una guía, se ha creado un espacio web específico con amplia información sobre la materia, así como un servicio de asesoramiento especializado dirigido al personal de las administraciones públicas vascas.

Se ha renovado el Convenio de Colaboración que fue suscrito en 2005 por Emakunde y Eudel para la puesta en marcha de **la Red Berdinsarea / Red de Municipios vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres**. A través de la misma:

Se ha trabajado con el personal político y técnico municipal responsable del impulso de las políticas de igualdad.

Se han analizado y valorado las solicitudes de adhesión de municipios Berdinsarea. En concreto se han incorporado a la red los municipios de Sondika y Zamudio, lo que eleva a 59 el número de los que la integran.

Se ha coordinado y gestionado el programa Beldur Barik y se ha participado en las comisiones y sesiones de trabajo para su diseño, implementación y seguimiento, en el marco de la campaña del 25 de noviembre “Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres”. Se ha asistido a “Beldur Barik topaketa 2013” y a la entrega de premios 2013.

Se ha participado en las reuniones de la Comisión y en los plenarios sobre protocolos locales de atención a mujeres víctimas de maltrato doméstico y agresiones sexuales, en la jornada de presentación de la programación 2013 de Virginia Woolf Basqueskola, en la Comisión para la elaboración de ordenanzas de igualdad de mujeres y hombres y en el programa de formación-acción para agentes de igualdad.

Se ha renovado el Convenio de colaboración con Eudel para apoyar y financiar el servicio de dinamización y asesoramiento a municipios de menor población y se ha realizado seguimiento de la ejecución de las actuaciones.

2013ko ekainaren 27an, **EAEn etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeak** bilera egin zuen. Batzorde horren barruan, Erakunde Arteko Lantalde Teknikoaren lana bultzatu eta koordinatu da. Batzordeak 11 lan-saio egin ditu. Besteak beste, gai hauek jorratu ditu: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eskainitako zerbitzuak Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeen artean banatzea, emakume biktimentzako arretaren jarduketa-esparruetako lehentasunak, berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko prestakuntzaren diagnostikoa, indarkeriaren biktimak diren seme-alabentzako arretaren diagnostikoa, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako terminologia, EAEko babes-aginduaren eskaera-eredua, EAEko zerbitzu-zorroko ekarpenak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren *Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana* dokumentuko ekarpenak.

La **Comisión de Seguimiento del II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual de la CAE** celebró una sesión el 27 de junio de 2013. En el marco de la misma, se ha impulsado y dinamizado el trabajo del GTI, Grupo Técnico Interinstitucional, que ha celebrado 11 sesiones de trabajo. Entre otros se han abordado los siguientes temas: reasignación de los servicios de la Dirección de Atención a Víctimas de la Violencia de Género en los distintos departamentos y organismos del Gobierno Vasco, prioridades a trabajar en los distintos ámbitos de actuación en la atención de mujeres víctimas, diagnóstico de formación en igualdad y violencia contra las mujeres, diagnóstico en la atención a hijas e hijos de víctimas de violencia, terminología en materia de violencia contra las mujeres, modelo de solicitud de orden de protección en la CAPV, aportaciones a la cartera de servicios CAPV, aportaciones al Plan de Coeducación y prevención de la violencia de género del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura.

**Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokia** aldatuko da. Izan ere, Erakunde arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeak erabaki duenez, abenduaren 13ko 264/2011 Dekretua indargabetu da, Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokia sortzeko eta bere funtzionamendua eta osaera arautzeko dena, eta Informazio Sistemen Taldea sortu da. Horrek hartuko ditu bere gain aipatu behatokiak planteatutako helburuak garatzeko beharrezkoak diren lan teknikoak. Bi lan-bilera egin ditugu, eta indarkeriaren biktimak diren emakumeak artatzen diren eremuetan informazioa biltzeko material eta galdetegi homogeneoak egitea kontratatu dugu.

El **Observatorio Vasco de la Violencia contra las mujeres** será objeto de modificación ya que, la Comisión de Seguimiento del II Acuerdo Interinstitucional acuerda derogar el Decreto del Observatorio Vasco de Violencia Machista (Decreto 264/2011, de 13 de diciembre por el que se crea el Observatorio Vasco de Violencia Machista contra las Mujeres) y crea el Grupo de Sistemas de Información (GSI) que asume las tareas técnicas necesarias para el desarrollo de los objetivos planteados por el mencionado observatorio. Se han mantenido dos reuniones de trabajo y se ha contratado la elaboración de materiales y cuestionarios homogéneos para la recogida de información en los ámbitos implicados en la atención a mujeres víctimas de violencia.

4. EAE-KO BOTERE PUBLIKOEKIN LANKIDETZAN ARITZEA ETA EKINTZAK BURUTZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNAREN HELBURUA LANTZEKO

Jaurlaritzak sustatzen duen **legearen generoaren araberako eraginaren ebaluazioari** dagokionez:

56 txosten egin ditugu, 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan xedatutakoa behar bezala aplikatzen dela egiaztatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Berdintasunerako Unitateekin elkarlanean, eraginaren ebaluazioak egiteko laguntza materiala osatu dugu, alor hauei dagokienez: komunikazioa, ekonomia, hezkuntza, enplegua, ekintzailetza, I+G+b, industria, ingurumena, garraioa eta mugikortasuna, osasuna eta informazioaren gizartea.

Generoaren araberako eraginaren ebaluazioen esparruan Eusko Jaurlaritzak egin duen lana jardunbide egoki gisa aurkeztu da genero-mainstreamingaren eraginkortasunari buruzko hitzaldiaren barruan. Europako Batasuneko presidentetza Lituaniak duela aintzat hartuta, herrialde horretan antolatu zuen Europako Genero Berdintasunerako Erakundeak.

Aplikazio informatiko bat garatu eta ezarri dugu, eragin-txostenak erregistratzeaz gain, emakumeen eta gizonen berdintasunari laguntzen dioten neurriak -generoaren

4. REALIZAR ACTUACIONES Y COLABORAR CON LOS PODERES PÚBLICOS VASCOS PARA EL DESARROLLO DEL OBJETIVO DE IGUALDAD EN LAS POLÍTICAS PÚBLICAS

En relación a la **evaluación del impacto de género de la normativa** que promueve el Gobierno:

Se han emitido 56 informes para verificar la correcta aplicación de lo dispuesto en los artículos 19 y 20 de la Ley 4/2005.

Se han elaborado, en colaboración con las unidades de igualdad del Gobierno Vasco, materiales de apoyo para la realización de evaluaciones de impacto en los siguientes ámbitos: comunicación, economía, educación, empleo, emprendimiento, I+D+i, industria, medio ambiente, transporte y movilidad, salud, y sociedad de la información.

Se ha presentado la labor desarrollada por el Gobierno Vasco en el ámbito de las evaluaciones de impacto en función del género como una buena práctica, en el marco de la Conferencia sobre la efectividad del mainstreaming de género, organizada por el Instituto Europeo de Igualdad de Género en Lituania con ocasión del ejercicio de la presidencia de la Unión Europea por parte de dicho país.

Se ha desarrollado e implementado una nueva aplicación informática para que, además de registrar los informes de impacto, se puedan evaluar las medidas que para

araberako eragina ebaluatzeko prozesuaren ondorioz araudian sartu direnak- ebaluatu ahal izateko.

**Prestakuntza**, bestalde, bi mailatan antolatu dugu: bateko, prestakuntza-ikastaroak egin ditugu, eta, besteko, beste erakunde batzuekin elkarlanean aritu gara emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako prestakuntza-jarduketetan.

Diru-laguntzetan, hitzarmenetan eta kontratu publikoetan berdintasun-klausulak aplikatzeari buruzko jardunaldia. 2013ko apirilak 9, Bilbo - Bizkaia Aretoa - Baroja Auditoriuma.

«Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aplikazio praktikoa Europako funtsek kofinantzatutako esku-hartzeetan», 2007-2013 aldirako Egiturazko Funtsen eta Kohesio Funtsen Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasuneko Politiken Sarearen barruan. Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitzan (Kale Nagusia, 85) egin zen jardunaldia, 2013ko irailaren 30ean.

IVAPekin lankidetzan, 2013rako programatutako prestakuntza-ekintza hauek martxan jarri ditugu 2008-2018 Berdintasunerako Prestakuntza Planaren barruan: «Hizkuntza eta generoa: hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiteko»; «Errealitatearen diagnostikoa eta azterketa genero-ikuspegitik», «Azterketa eta ikerketa kuantitatiboak genero-ikuspegia baliatuta», «Genero-aurrekontuei buruzko ikastaro teoriko praktikoa», «Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko oinarrizko prestakuntza-ikastaroa» eta «Generoaren araberako eraginaren aurretiko ebaluazioa». Azken bi ikastaroetan, Emakundeko langileak irakasle gisa aritu ziren.

Bestalde, EHUrekin udako ikastaro bat antolatu dugu: «Genero-begiradak zientziari, teknologiari eta berrikuntzari». 2013ko ekainaren 17an eta 18an izan zen, Donostiako Miramar jauregian.

2012-2013 ikasturtean, EHUko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren Gaineko Online Masterrarekin elkarlanean aritu gara: irakaskuntzan laguntzeaz gainera, Emakunden praktikak egiteko aukera eskaini eta diru-laguntza izendun bat eman dugu.

Berdintasunaren alde lan egiteko eragile-sare bat sortzeko estrategiaren garapena kontratatu dugu.

**Generoari eta berdintasun-politikei buruzko ikerketak eta azterketak** sustatu ditugu. Hartara:

Hiru ikerketa-beka eman ditugu.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruan profesionalek eta gizarte-eragileek egindako ikerketen argitalpena eta hedapena babesteko eta sustatzeko lehiaketa bat egin dugu.

**NAHIKO hezkidetza-programari** hasiera eman diogu, 2013-2015 urteetarako: ikastetxeak deitzeko eta hautatzeko prozesua aurrera eraman dugu, eta parte hartuko duten 25 ikastetxeentzako materialak egin ditugu; 100 lantalde eta 2000 ikasle baino gehiago izango dira, guztira.

**BEGIRA publizitate eta komunikazio ez-sexista**

favorecer la igualdad de mujeres y hombres se han introducido en la normativa como consecuencia del proceso de evaluación de impacto en función del género.

Respecto a la labor de **formación**, se ha trabajado en dos niveles; por un lado se han organizado directamente cursos de formación y, por otro lado, se ha colaborado con otras entidades en actividades de formación en relación con la igualdad de mujeres y hombres.

Jornada sobre "Cláusulas de igualdad en subvenciones, convenios y contratos públicos". 9 de abril de 2013 / Bilbao - Bizkaia Aretoa-Auditorio Baroja.

Jornada sobre "Aplicación práctica del principio de igualdad entre mujeres y hombres en las intervenciones cofinanciadas por los fondos europeos", en el marco de la Red de políticas de igualdad entre mujeres y hombres en los Fondos Estructurales y el Fondo de Cohesión 2007-2013, celebrada el 30 de septiembre de 2013 en la sede del Gobierno Vasco en Bilbao (Gran Vía, 85, Bilbao).

En colaboración con el IVAP, en el marco del Plan de Formación en Igualdad 2008-2018, se han puesto en marcha las acciones formativas programadas para el 2013 «Lengua y género: para un uso no sexista de la lengua», "Diagnóstico y análisis de la realidad desde la perspectiva de género», "Estudios e investigaciones cuantitativas con enfoque de género", "Curso teórico-práctico sobre presupuestos de género", "Curso básico de formación sobre igualdad de mujeres y hombres" y «Evaluación previa de impacto de género»; así como la participación de personas de Emakunde como docentes en los últimos dos cursos mencionados.

En colaboración con la UPV/EHU se ha organizado el Curso de verano "Miradas de género a la ciencia, la tecnología y la innovación", 17 y 18 de junio de 2013 en Donostia-San Sebastián (Palacio Miramar).

Se ha colaborado con el "Master on line en Igualdad de Mujeres y Hombres" (curso 2012-2013) de la UPV/EHU, a través del apoyo en la docencia, realización de prácticas en Emakunde y la concesión de una subvención nominativa.

Se ha contratado la elaboración de una estrategia para la creación de una red de agentes de cambio hacia la igualdad.

Se ha promovido la **investigación y el estudio sobre género y políticas de igualdad** a través de:

La concesión de tres Becas de investigación.

La realización de un Certamen para promover y apoyar la publicación y difusión de investigaciones realizadas por profesionales y agentes sociales en materia de igualdad de mujeres y hombres.

Se ha iniciado el **Programa coeducativo NAHIKO** para los años 2013-2015: Se ha llevado a cabo el proceso de convocatoria y selección de los centros así como la elaboración de materiales para los 25 centros participantes con más de 100 grupos de trabajo y más de 2000 alumnos y alumnas.

La **Comisión asesora para un uso no sexista de la**

**erabiltzeko Aholku Batzordeak** bere lehenengo ohiko bilkura egin du. Bertan, batzordea sortu eta martxan jarri zen. Horren barruan, ondoko hauekin lotutako proposamenak egiaztatu, ekarpenak bildu eta akordioak lortu ziren: BEGIRAren 2013-2014 urteetarako Lan Plana, publizitatean sexismoa hautemateko dekalogo-proposamena, kexak eta salaketak jasotzeko eta izapidetzeko prozedura, BEGIRAren ikerketa, memoria eta txostenen proposamenak, kode deontologikoak egiteko eta diseinatzeko proposamena, eta BEGIRAren hedapen-estrategiak.

Ezagutzaren alor eta jarduera profesional ezberdinetan **aditu diren emakumeen direktorioa** zabaltzen dihardugu. Komunikabideetan eta bestelako jardueretan (zientifikoak, prestakuntzakoak, eta abar) emakumeek partaidetza handiagoa izan dezaten laguntzea eta sustatzea da horren xedea.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeekin, foru-aldundiekin eta udalekin egindako **lankidetza-jarduketei** dagokienez, hauek nabarmendu ditzakegu:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin batera lan hauetan aritu gara: Euskal hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana garatzea, komunikazio grafikoko eta ikus-entzunezko lanbide-familia artistikoari dagozkion goi mailako zenbait titulazio teknikoren curriculum-diseinuan genero-ikuspegia txertatzea; araubide bereziko eta lanbide-heziketako irakaskuntzen curriculumean genero-ikuspegia txertatzeko laguntza-gidaliburua egitea; gazteen artean emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko Beldur Barik programa hezkuntzaren, kulturaren eta gazteen esparruan txertatzeko estrategiak definitzea; kirolaren esparruan emakumeen aurkako sexu-jazarpen eta -abusuei aurre egiteko protokoloa egitea; II. eta III. Gazte Planak egitea, eta Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (V. planifikazio-aldia, 2013-2017.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekiko lankidetzari dagokionez, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluaren osoko bilkuran parte hartu dugu, bai eta EAEko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroaren osoko bilkuran eta Gizarteratze Aktiboaren III. Euskal Planean ere.

Herri Administrazio eta Justizia Sailarekin lankidetzan aritu gara, Berdintasunerako Unitate Administratiboaren eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren bidez, Berdintasunerako Erakunde Publikoen Sarea abian jartzeko. Gonbidapenak bidali dizkiegu Eusko Jaurlaritzaren partaidetzak % 50 gutxienez osatzen duen erakunde publikoei.

Kzguneak sarearekin eta EJIErekin elkarlanean aritu gara, Emakumeak Sareak proiektuaren aurreko edizioen azterketa kualitatiboa egiteko eta emakumeen elkarte eta taldeei zuzendutako prestakuntza digitaleko hirugarren deialdia diseinatzeko.

2013-2020 Osasun Planaren txostena egin dugu.

Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Indarkeriaren Behatokian

**publicidad y la comunicación/BEGIRA** ha celebrado su primera sesión ordinaria de constitución y puesta en marcha. En el marco de la misma, se contrastaron propuestas, se recogieron aportaciones y se tomaron acuerdos relativos al Plan de Trabajo de BEGIRA para el periodo 2013-2014; la propuesta de Decálogo para la detección del sexismo en la publicidad; el Procedimiento para la recogida y tramitación de quejas y denuncias, las propuestas de Estudios, Memorias e Informes de BEGIRA; la propuesta para el diseño y la elaboración de Códigos Deontológicos y; las estrategias de difusión de BEGIRA.

Se continúa ampliando el **Directorio de mujeres expertas** en diversos ámbitos del conocimiento y de la actividad profesional, a fin de promover y facilitar una mayor participación de las mujeres tanto en los medios de comunicación como en otras actividades (científicas, formativas, etc.).

En cuanto a las **actuaciones de colaboración** realizadas con los distintos Departamentos y organismos del Gobierno Vasco, Diputaciones Forales y los Ayuntamientos, cabe destacar que:

Se ha colaborado con el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura en la elaboración del Plan Director de coeducación y prevención de la violencia de género en el sistema educativo vasco; la integración de la perspectiva de género en el diseño curricular de varias titulaciones técnicas superiores pertenecientes a la familia profesional artística de Comunicación Gráfica y Audiovisual; la elaboración de una guía de apoyo para la incorporación de la perspectiva de género en el currículum de las enseñanzas de Régimen Especial y de Formación Profesional; la definición de estrategias para la inclusión del Programa Beldur Barik, de prevención de la violencia contra las mujeres entre la juventud, en el ámbito educativo, cultural y juvenil; la elaboración de un protocolo de acoso y abuso sexual a mujeres en el ámbito deportivo; el II y III Gazte Plana; y en el Plan General de Normalización del Uso del Euskera en el Gobierno Vasco (V periodo de planificación 2013-2017).

Se ha colaborado con el Departamento de Empleo y Políticas Sociales tomando parte en el Pleno del Consejo Vasco de Servicios Sociales así como en el Pleno del Foro para la Integración y Participación Social de las Ciudadanas y los Ciudadanos y en el III Plan vasco de inclusión activa.

Se ha colaborado con el Departamento de Administración Pública y Justicia a través de su Unidad Administrativa para la Igualdad y de la Dirección de Atención Ciudadana e Innovación de la Administración para poner en marcha la Red de Entidades Públicas para la Igualdad. Se han enviado invitaciones a las entidades públicas que tengan al menos el 50% de participación del Gobierno Vasco.

Se ha colaborado con la red de Kzguneak y con Ejie para la evaluación cualitativa de las anteriores ediciones de Emakumeak Sarean y para el diseño de la tercera convocatoria de formación digital dirigida a asociaciones y colectivos de mujeres.

Se ha informado el Plan de Salud 2013-2020.

Se ha tomado parte en el Observatorio de la Violencia de

parte hartu dugu.

5. EMAKUMEEN PARTE-HARTZE SOZIO-POLITIKOA SENDOTZEA

Aholku Batzordearen bilerak egiten jarraitu dugu, Emakunderen eta emakume-elkarteen artean komunikatzeko bidea baita. Era berean, lurraldekako aholku-azpibatzordeekin eta lurralde bakoitzeko batzorde eta lantaldeekin elkartzen jarraitu dugu; azken horien artean hauek dira aipagarriak: Gizarte-bazterkeriaren eremuan diharduten elkarteak, emakume alargunen elkarteak, komunikabideak eta elkarte-mugimendua, parte-hartzea areagotzeko prestakuntzaren plangintza kodinamizatzen duten elkarteak, emakume etorkinen ordezkariak, landa-emakumeen ordezkariak, desgaitasunen bat duten emakumeen ordezkariak eta emakumezko ijitoen ordezkariak.

Emakumeen berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeetako datu-baseetako eta EAEko Emakumeen Elkarteen Gidako datuak eguneratzea xede duen galdetegi bat egin dugu. Horren osagarri gisa beste bat diseinatu dugu, EAEko emakumeen elkarteek eta federazioek informazioaren eta komunikazioaren teknologiei dagokienez dituzten ekipamenduak eta egiten duten erabilera ezagutzea helburu duena.

Emakume-elkarte eta -sareentzako prestakuntza-proiektu berriak bultzatu eta babestu ditugu, horiek ebaluatu ondoren, prestakuntza-ekintza berriak bultzatzeko, esperientzian oinarritutako ikasketa-dinamikak erabiliz.

Ijito Herriaren Euskal Kontseiluarekin lan egin dugu. Emakume ijitoek kontseiluan nahiz horren esparruan sortutako batzordeetan duten partaidetza aktiboa sustatu eta sendotu nahi dugu horren bitartez.

Landa Eremuko Emakumeen Batzordearen plan estrategiko berriko ekintzak egiten parte hartu dugu; nekazaritza-emakumeen estatutua egiteko batzordea eta Landa Eremuko Emakumeen Batzordea bera arautzeko antolamendua dira horietako bi.

Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin lan egin dugu, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Familia Politikarako eta Gizarte Garapenerako Zuzendaritza.

Elkartegintza sustatzeko eta emakumeek EAEko esparru guztietan parte har dezaten bultzatzeko diru-laguntzen deialdia egin dugu. Deialdira 139 elkarte aurkeztu ziren, eta horietatik 131k jaso dute diru-laguntza.

Elkarte hauei diru-laguntza izendunak eman dizkiegu: Argiri eta Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroa.

Bestalde, Emakundek aurkeztu diren proiektuen jarraipena egin du, sareak sendotzearekin lotutako proiektuena, bereziki.

6. ENPRESA ETA ENTITATE PRIBATUETAN BERDINTASUNA SUSTATZEA

Género de la Diputación Foral de Bizkaia.

5. FORTALECER LA PARTICIPACIÓN SOCIO-POLÍTICA DE LAS MUJERES

Se ha continuado con las reuniones de la Comisión Consultiva, cauce de comunicación establecido entre Emakunde y las asociaciones de mujeres, las reuniones con las Subcomisiones Consultivas territoriales así como con las distintas comisiones y grupos de trabajo de cada territorio, entre los que destacan los relativos a: Asociaciones que actúan en el ámbito de la exclusión social, Asociaciones de mujeres viudas, Medios de comunicación y movimiento asociativo, Asociaciones codinamizadoras en la planificación de la formación para la participación, Representantes de mujeres inmigrantes, Representantes de mujeres rurales, representantes de mujeres con discapacidad y representantes de mujeres gitanas.

Se ha diseñado un cuestionario para la actualización de los datos obrantes en la Base de Datos de entidades que trabajan a favor de la igualdad de mujeres y hombres y en la Guía de Asociaciones de Mujeres en la CAE. Este cuestionario se acompaña de otro con el objetivo de conocer el nivel de equipamiento y de uso de las Tecnologías de la Información y Comunicación por parte de las asociaciones y federaciones de mujeres en la CAE.

Se han impulsado y apoyado nuevos proyectos de formación para asociaciones y redes de mujeres para, tras su evaluación, impulsar nuevas acciones formativas utilizando dinámicas de aprendizaje experiencial.

Se ha colaborado con el Consejo Vasco del Pueblo Gitano, con el objetivo de fomentar y consolidar la participación activa de las mujeres gitanas en el propio Consejo así como en las diferentes comisiones de trabajo creadas en el marco del mismo.

Se ha colaborado en el desarrollo de acciones del nuevo plan estratégico, de la Comisión de Mujeres Rurales, entre las que se encuentran la comisión para la elaboración del estatuto de las mujeres agrícolas, la elaboración del ordenamiento de regulación de la propia Comisión de Mujeres Rurales, entre otras.

Se ha colaborado con el Consejo Vasco del Voluntariado, Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, Dirección de Política Familiar y Comunitaria.

Se han convocado las subvenciones para fomentar el asociacionismo y potenciar la participación de las mujeres en todos los ámbitos de la CAE. Las asociaciones beneficiarias han sido 131 de entre las 139 que presentaron solicitud a la convocatoria.

Se han concedido subvenciones nominativas a las siguientes asociaciones: Argiri, y Centro de Documentación de Mujeres Maite Albiz.

Se ha realizado el seguimiento de los proyectos presentados, especialmente de los relacionados con la consolidación de redes.

6. FOMENTAR LA IGUALDAD EN EMPRESAS Y ENTIDADES PRIVADAS

**Enpresa eta erakundeetan berdintasun**-politikak sustatzearekin lotuta, jarduketa hauek egin ditugu:

Enpresei informazioa eta aholkularitza eman dizkiegu, berdintasunerako legeen inguruan eta emakumeen eta gizonen desberdintasunaren eta bereizkeriaren aurka borrokatzeko dauden neurrien inguruan.

Enpresei eta beste erakunde pribatu batzuei informazioa eta aholkularitza eman dizkiegu, emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko duen jarduketa-plana (diru-laguntzen deialdi baten bidez) egin ditzaten.

Handitu egin da laneko sexu-jazarpena eta jazarpen sexista prebenitzeko protokoloak ezartzeko informazio- eta aholkularitza- eskaera, berdintasunari buruzko Espainiako legea betearazteko beharraren ondorioz; era berean, Emakundek betearazpen hori sustatu du, eta hala, protokolo-eredu bat egin eta zabaldu dugu, eta laneko sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko prestakuntza-jardunaldi bat antolatu genuen, martxoaren 14an.

Emakumeen enplegua sustatzeko 2013ko laguntzen gidaliburua eta kontratazio-modalitateak eguneratu ditugu.

Emakumeen ekintzailetza sustatzeko EAEko laguntzen 2014ko mapa izeneko gidaliburua egin dugu.

Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako la lankidetza-erakundearen izaera aitortzeko eskabideak balioetsi ditugu, eta hamahiru onartu.

Lankidetza-erakundeen segimendua egin dugu 424/1994 Dekretuarekin bat etorriz, zeinak 2012. urteari dagokion segimendu-txostena eta 2013. urterako lan-plana entregatzea eskatzen baitu. Lau aintzatespen baliogabetu ditugu.

Aholkularitzei informazioa eta aholkularitza eman dizkiegu, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan enpresa eta erakundeei laguntza teknikoa emateko aholkularitzak homologatzeko deialdiari dagokionez.

Lau enpresatako eskaerak balioztatu ditugu. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean enpresa eta erakundeei laguntza teknikoa emateko homologatutako hiru aholkularitzei egiaztapena eman diegu, 105/2004 Dekretuarekin bat (abenduaren 28ko 348/2010 Dekretuaren bidez aldatuta).

Homologatutako aholkularitzen jarraipena egin dugu, homologazioak eskatzen dituen baldintzak betetzen jarraitzen dutela berresteko. Aholkularitza bati homologazioa kendu diogu.

Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzen deialdia antolatu dugu, aholkularitza homologatuak kontratatu ditzaten, berdintasunari buruzko diagnostiko bat eta plan bat egiteko. Eskera guztiak (29) balioztatu ostean, 17 erakundek jaso zuten diru-laguntza.

7. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO KOMUNIKAZIOA, INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

Respecto a la promoción de políticas **de igualdad en empresas y entidades** se han realizado las siguientes actuaciones:

Información y asesoramiento a empresas en relación con las leyes de igualdad y las medidas existentes para luchar contra la discriminación y desigualdad de mujeres y hombres.

Información y asesoramiento a empresas y otras organizaciones privadas para que realicen un diagnóstico sobre la situación de mujeres y hombres y un plan de actuación dirigido a promover la igualdad de mujeres y hombres, a través de una convocatoria de subvenciones.

Incremento en la demanda de Información y asesoramiento para la implementación de protocolos de prevención de acoso sexual y sexista en el trabajo derivada de la necesidad de ejecución de la ley de igualdad estatal e impulsada desde Emakunde a través de la elaboración y difusión de un modelo de protocolo, así como, de la organización de una jornada de Formación sobre acoso sexual y sexista en el trabajo celebrada el 14 de marzo.

Se ha actualizado la guía de ayudas y modalidades de contratación para promover el empleo de las mujeres 2013.

Se ha diseñado la guía “Mapa de ayudas para el apoyo del emprendimiento de mujeres en la CAE 2014”.

Valoración de las solicitudes para el reconocimiento como “Entidad colaboradora de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres” se han otorgado 13 reconocimientos.

Seguimiento de las Entidades Colaboradoras en virtud del Decreto 424/1994, que exige la entrega del informe de seguimiento correspondiente al año 2012 así como el plan de trabajo para el 2013. Se ha procedido a la retirada de cuatro reconocimientos.

Información y asesoramiento a consultoras en relación con la convocatoria para la homologación de consultoras para la prestación de asistencia técnica en materia de igualdad de mujeres y hombres a empresas y entidades.

Valoración de las solicitudes de cuatro empresas. Acreditación de tres Consultoras Homologadas para la prestación de asistencia técnica en materia de igualdad de mujeres y hombres en empresas y entidades, al amparo del Decreto 105/2004 (modificado por el Decreto 348/2010, de 28 de diciembre).

Seguimiento de las Consultoras Homologadas para corroborar que siguen cumpliendo con los requisitos para la homologación. Se ha procedido a la retirada de homologación de una consultora.

Convocatoria de subvenciones a empresas y entidades privadas para la contratación de una consultora homologada para la realización de un diagnóstico y un plan de igualdad. Tras la valoración de todas las solicitudes (29) se subvencionaron 17 entidades.

7. COMUNICACIÓN, INFORMACIÓN Y SENSIBILIZACIÓN SOBRE LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

Se han organizado las siguientes **actividades de**

sustatzeko,**sentsibilizazio- eta informazio-jarduera** hauek antolatu ditugu:

Emakumeen Nazioarteko Eguneko (martxoak 8) kanpaina, «**Berdin gehiago da** = Berdintasuna: gizarte osoari mesede egiten dion giza eskubidea» lelopean.

Azaroaren 25eko kanpaina egin dugu, «Beldur Barik» lelopean eta gazteen artean emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea helburu. Berdinsarearen esparruan antolatu zen, hiru foru-aldundien babesarekin eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITBren laguntzaz.

Emakunderen sorreraren 25. urteurrena ospatu dugu Lehendakaritzan.

Emakunderen Berdintasunerako Saria banatzeko ekitaldia. 2012ko edizioan, Bilboko laguntza psikosozialeko moduluak (Rekaldeberri, Deustu-San Inazio eta Irala-Auzolan) izan ziren sarituak.

Berdintasunerako Sariaren 2013ko edizioaren deialdia egin dugu. La Posada de los Abrazos gizarte-bazterketaren aurkako elkarteri eman diogu aintzatespena.

«Genero-analisia osasun-ikerketan» jardunaldia antolatu dugu, Emakumeen Osasunaren Aldeko Nazioarteko Ekintza Egunaren harira.

«Berdintasuna, osasun psikosoziala eta bikaintasuna» jardunaldia antolatu dugu, 2013ko Kalitatearen eta Bikaintasunaren Europar Astea dela eta.

**Komunikabideetan** presentzia jarraitua mantendu dugu. Hala, iritzi-artikuluak eta prentsa-oharrak argitaratzeaz gain, prentsaurrekoak eta elkarrizketak egin diegu, eta eskaera bereziei erantzun diegu. Era berean, komunikazio-jarduketa hauek egin ditugu:

Emakunderen aldizkari digital berria abiarazi dugu.

Buletin elektronikoak (*newsletter*) bidali ditugu, aldizkariko edukiekin.

Berdintasunaren alorreko azken eguneraketen berri ematen dugu modu jarraituan, Emakunderen Facebookeko eta Twitterreko kontuen bidez. Gainera, Emakunderen jarduerarekin lotutako bideoak igo ditugu sarera, eta erakundeak kontu bat dauka dagoeneko Youtuben.

Gobernu Irekia atarian Emakunderi buruzko albisteak eta eguneraketak txertatu dira.

**Berdintasunerako X. Gunea** antolatu dugu, «Berdintasunagizarte osoari mesede egiten dion giza eskubidea» izenburupean.

Prestaketa-mintegia maiatzaren 9an izan zen, Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitzan.

Urriaren 1etik 31ra bitartean antolatutako foro horretan 90 erakunde publikok eta pribatuk parte hartu zuten, 4500 eta 5000 pertsona artean bildu zituzten 83 jarduera antolatu zituztenak.

**Berdintasunaren aldeko** eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako **gizartearen eta gizonen inplikazioa**

**sensibilización e información** orientadas a fomentar la igualdad de mujeres y hombres:

Campaña del 8 de marzo "Día Internacional de las Mujeres" bajo el lema **= es +** La igualdad: un derecho humano, un beneficio para toda la sociedad.

Campaña del 25 de noviembre bajo el lema "Beldur Barik" dirigida a la prevención de la violencia contra las mujeres en la juventud, en el marco de Berdinsarea con el apoyo de las tres diputaciones forales y la colaboración del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura, la Universidad del País Vasco y Eitb.

Celebración del 25 aniversario de la creación de Emakunde en Lehendakaritza.

Acto de entrega del Premio Emakunde a la Igualdad, edición 2012 a los Módulos de asistencia psicosocial de Bilbao (de Rekaldeberri, Deusto-San Ignacio e Irala-Auzolan).

Convocatoria del Premio Emakunde a la Igualdad, edición 2013 que se ha otorgado a la asociación contra la exclusión social La Posada de los Abrazos.

Jornada sobre "El análisis de género en la investigación en salud" organizada con ocasión del Día Internacional de Acción por la Salud de las Mujeres.

Jornada sobre "Igualdad, salud psicosocial y excelencia" organizada con motivo de la Semana Europea de la Calidad y la Excelencia 2013.

Se ha mantenido una presencia continua en **medios de comunicación** a través de la publicación de artículos de opinión, ruedas de prensa y notas de prensa, además de entrevistas y respuestas a demandas puntuales. Asimismo, se han realizado las siguientes actuaciones de comunicación:

Puesta en marcha de la nueva la revista digital de Emakunde.

Remisión de boletines electrónicos "newsletter" con los contenidos de la revista.

Actualización constante de la actualidad en materia de igualdad en redes sociales, contando Emakunde con una cuenta en Facebook y otra en Twitter. Asimismo, se han subido a la red los vídeos relacionados con la actividad de Emakunde, contando el instituto con una cuenta propia en el canal Youtube.

Introducción de noticias y actualizaciones referidas a Emakunde en el portal Irekia de Gobierno abierto.

Se ha organizado el **X Foro para la Igualdad** con el título de "La igualdad: un derecho humano, un beneficio para toda la sociedad".

El seminario de preparación se celebró el 9 de Mayo en la sede del Gobierno Vasco en Bilbao.

El foro tuvo lugar del 1 al 31 de octubre con la participación de 90 entidades públicas y privadas, que han organizado un total de 83 actividades, en las que han participado entre 4500 y 5000 personas.

En cuanto a la promoción de la **implicación de la sociedad y de los hombres a favor de la igualdad** y en

sustatzeari dagokionez, jarduera hauek azpimarratu ditzakegu Gizonduz ekimenaren esparruan:

Bere webgunea eta sare sozialak (Facebook, Youtube eta Vimeo) kudeatu ditugu.

2013. urteko sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa egin dugu.

Gazteak Berdintasunean 2.0 proiektua garatu dugu, EJIE, SA sozietate publikoarekin batera.

8. EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOAN HERRITARRAK DEFENDATZEA SEXU-ARRAZOIENGATIKO DISKRIMINAZIO-EGOEREN AURREAN, ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU-BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA SUSTATZEA

**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Zerbitzuak** informazio-eskaera, salaketa eta kexa ugariri erantzun die:

Telefono bidezko eta aurrez aurreko 300 kontsulta baino gehiago aintzat hartu ditu: erantzuna unean bertan eman zaie, edota horiek ebazteko eskumena duten erakunde eta zerbitzuetara bideratu dira.

Tratu-berdintasunari lotutako eta sexuan oinarritutako diskriminaziorik ez egiteko informazio eta aholkularitza espezializatuko 68 eskaerari idatzizko erantzuna eman zaie.

Sexuan oinarritutako diskriminazioko ustezko egoerekin lotutako 21 salaketa eta 17 kexa erregistratu ditu: horietatik 18 Arartekora eta/edo Emakumearen Institutura bideratu dira, beren gaia edo eskumen-esparru geografikoa arrazoi; eta beste 8ren ebazpen gisa, enpresa zein partikularrentzako gomendioak igorri dira.

Era berean, indarreko araudiak sexuan oinarritutako diskriminazioa eragin dezakeen kasu hauen inguruko hiru txosten egin ditugu: enpresa-hitzarmen bati lotutako sexuan oinarritutako ustezko diskriminazioa, haurdun dagoen emakume bat kaleratzeko ahalegina, eta Osakidetzako ospitaleetako jarduketa-protokoloa enbrioi-hondakinei dagokienez.

9. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZEA

Genero-indarkeriaren biktimak izan diren emakumeei ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoak: 277 eskaera izapidetu ditugu, eta horietatik 164 onartu.

Indarkeriaren biktimak izandako emakumeentzako arreta-/bideratze-zerbitzuan aurrez aurreko arreta, telefono-deiak eta posta elektronikoa baliatu dira.

EAEko eta beste autonomia-erkidego batzuetako profesional, erakunde eta instituzioei aholkularitza eman diegu emakumeen aurkako indarkeriaren arloan.

SATEVI emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako 24 orduko telefono bidezko arreta zerbitzua kudeatu dugu. Horren bidez, 3.495 deiri erantzun diegu.

contra de la violencia hacia las mujeres cabe destacar en el marco de la iniciativa Gizonduz las siguientes actuaciones:

Se han administrado su espacio web y sus redes sociales (Facebook, YouTube y Vimeo).

Se llevado a cabo el Programa de sensibilización y formación correspondiente a 2013.

Se ha desarrollado el proyecto “Gazteak Berdintasunean 2.0”, en colaboración con la sociedad pública EJIE, SA.

8. DEFENSA DE LAS CIUDADANAS Y CIUDADANOS ANTE SITUACIONES DE DISCRIMINACIÓN POR RAZÓN DE SEXO Y DE PROMOCIÓN DEL CUMPLIMIENTO DEL PRINCIPIO DE IGUALDAD DE TRATO DE MUJERES Y HOMBRES EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

El **Servicio de Defensoría para la igualdad de mujeres y hombres** ha atendido numerosas solicitudes de información, denuncias y quejas:

Se han atendido más 300 consultas telefónicas y presenciales que han sido respondidas en el momento o derivadas a aquellos órganos y servicios competentes para su resolución.

Se han respondido por escrito a 68 solicitudes de información y asesoramiento especializado en materia de igualdad de trato y no discriminación por razón de sexo.

Se han registrado 21 denuncias y 17 quejas relativas a presuntas situaciones de discriminación por razón de sexo: 18 de ellas, por su temática o ámbito de competencia geográfica, han sido derivadas al Ararteko y/o al Instituto de la Mujer y 8 han sido resueltas mediante la emisión de recomendaciones dirigidas tanto a empresas como a particulares.

Además, se han realizado 3 informes relacionados con supuestos en los que la regulación existente podría incurrir en discriminación por razón de sexo: posible discriminación por razón de sexo de un Acuerdo de empresa; intento de despido de una mujer embarazada; y por último, protocolo de actuación que se utiliza en los Hospitales de Osakidetza respecto a los restos embrionarios.

9. ATENDER A LAS MUJERES VICTIMAS DE VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

Se han tramitado 277 solicitudes de ayuda económica de pago único a mujeres víctimas de violencia de género, de las cuales se han concedido 164.

Se ha realizado la atención/derivación a mujeres víctimas de violencia mediante atenciones presenciales, llamadas telefónicas y correo electrónico.

Se ha asesorado a profesionales, entidades e instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como de otras comunidades, en materia de violencia contra las mujeres.

Se ha gestionado el servicio de atención telefónica 24 horas SATEVI para víctimas de violencia a través del cual se han gestionado 3.495 llamadas.

SAV biktimari laguntzeko zerbitzua kudeatu dugu, genero-indarkeriaren biktimak izan diren emakumeen arretari dagokionez.

Se ha gestionado el Servicio de Asistencia a la Víctima (SAV) en lo que se refiere a la atención a mujeres víctimas de violencia de género.

Irabazi asmorik gabeko elkarte, erakunde eta fundazioentzako diru-laguntzen deialdia egin eta kudeatu dugu, 2013an zehar proiektu eta jarduera zehatzak egiteko; helburua: emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea, indarkeriazko portaeren inguruan herritarrak sentsibilizatzea eta biktimei arreta eta babesa ematea. Aurkeztutako 40 erakundeetatik, 16ri eman diegu diru-laguntza.

Se ha realizado y gestionado la convocatoria de subvenciones a asociaciones y organizaciones y fundaciones, sin ánimo de lucro, para la realización, durante 2013, de proyectos y actividades concretas cuya finalidad sea la prevención de la violencia contra las mujeres, la sensibilización sobre comportamientos violentos dirigida a la ciudanía, la atención y el apoyo a las víctimas. Han resultado subvencionadas 16 entidades de las 40 presentadas.

14 diru-laguntza eman ditugu, Deustuko Unibertsitatean Emakumeen Aurkako Indarkerian Esku Hartzeko Masterra egiteko.

Se han concedido 14 ayudas para la realización del Máster en intervención en violencia contra las mujeres de la Universidad de Deusto.

Askabideri diru-laguntza izendun bat eman diogu, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima izan diren emakumeak hartzeko eta artatzeko.

Se ha otorgado una subvención nominativa a Askabide para la gestión de la acogida y de la atención a mujeres víctimas de trata con fines de explotación sexual.

Wassu-UAB erakundearen kontratazioa kudeatu dugu, emakumeen genitalen mutilazioaren Euskadiko egoerari buruzko aurretiko ikerketa egin dezan.

Se ha gestionado la contratación de la entidad Wassu-UAB, para la realización del estudio preliminar sobre la problemática de la Mutilación Genital Femenina en Euskadi.

Segurtasuneko Sarrailagileen Federazioarekin hitzarmen bat izenpetu dugu, genero-indarkeriaren biktimak izan diren EAEko emakumeei sarrailagintza-zerbitzuak eskaintzeko.

Se ha suscrito el convenio con la Unión de Cerrajeros de Seguridad, para la prestación de servicios de cerrajería a las mujeres víctimas de violencia de género de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arretan parte hartzen duten talde profesionalen prestakuntzaren diagnostikoaren garapena kontratatu dugu, bai eta prestakuntza-eredu baten eta berau ezartzeko estrategiaren diseinua ere.

Se ha contratado la elaboración de un diagnóstico sobre la formación de los colectivos profesionales implicados en la atención a mujeres víctimas de violencia así como el diseño de un modelo de formación y la estrategia de implementación del mismo.

Euskadin genero-indarkeriaren biktimak diren haurrentzako arretari buruzko diagnostiko bat egitea kontratatu dugu.

Se ha contratado la elaboración de un diagnóstico sobre la atención a niños y niñas víctimas de la violencia de género en Euskadi.

10. LANKIDETZAN ARITZEA BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUETAKO, ESTATUKO EDO NAZIOARTEKO ANTZEKO ERAKUNDEEKIN

10. COLABORAR CON INSTITUCIONES Y ORGANISMOS ANÁLOGOS DE OTRAS COMUNIDADES AUTÓNOMAS, DEL ESTADO Y DE LA COMUNIDAD INTERNACIONAL

**Estatuko antzeko erakunde eta instituzioekiko lankidetzarekin** lotuta, jarduketa hauek egin ditugu:

En cuanto a la **colaboración con otras instituciones y organismos análogos del estado**, se han realizado las siguientes actuaciones:

Emakumearen Institutuak informazioaren gizartearen inguruan sortutako lantaldearekin lanean aritu gara genero-ikuspegia baliatuta: bidalitako ikerketa eta materialen inguruko ekarpenak eta oharrak egin ditugu.

Se ha colaborado con en el grupo de trabajo creado por el Instituto de la Mujer en torno a la Sociedad de la información desde una perspectiva de género realizando aportaciones y observaciones a los estudios y materiales remitidos.

Hezkuntzaren esparruan, Emakumearen Institutuak eta Hezkuntza Ministerioak bultzatutako INTERCAMBIA sarean parte hartu dugu.

En el ámbito de la educación, se ha participado en la Red INTERCAMBIA impulsada por el Instituto de la Mujer y el Ministerio de Educación.

**Europar Batasunari** dagokionez, jarduera hauek egin ditugu:

Por lo que respecta a la **Unión Europea**, se han llevado a cabo las siguientes actuaciones:

Emakundek Genero Berdintasunaren Europako Institutuak kudeatzen duen Euro Gender sarearekin bat egin du, eta, horretaz gain, institutu horrek antolatutako ekitaldi hauetan parte hartu du: Genero-mainstreamingaren eraginkortasunari buruzko hitzaldia, genero-

Emakunde se ha incorporado a la red Euro Gender que gestiona el Instituto Europeo de Igualdad de Género y ha participado también en los siguientes eventos organizados por dicho Instituto: Conferencia sobre la efectividad del mainstreaming de género, Seminario sobre cómo

mainstreaminga ezartzeari buruzko mintegia, eta begizta zuriaren kanpainari buruzko online jardunaldia.

Europako Gizarte Funtsaren (EGIF) eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (EGEF) Jarraipen Batzordeetan parte hartzen jarraitu dugu.

Emakunde, Emakumearen Institutuak eta EGEF eta EGIFen kudeaketa-agintaritzek sustatutako Egiturazko Funtsen Berdintasuneko Politiken Sareko kide den aldetik, sareak Santanderren egindako 7. osoko bilkuran izan da, bai eta haren esparruaren barruan sortutako lantaldeetan ere.

Bi funts horien laguntzaz finantzatutako programak egiten dituzten erakundeek berdintasunaren alorrean dituzten estrategiak indartzeko, bai egungo 2007-2013 programazio-aldian, bai hurrengo 2014-2020 programazio-aldian, lankidetzan jarraitu dugu Lanbiderekin (EGIFen bitarteko erakundea) eta Ekonomia Zuzendaritzarekin (EGEFen bitarteko erakundea). Elkarlan horren barruan, erakunde arteko bilera bat egin dugu, Egiturazko Funtsen barruan berdintasunaren inguruko lantalde tekniko bat sortzeko ideia balioztatzeko.

**Nazioarteko lankidetzan**, berriz, hainbat ekintza egin ditugu:

Iberoamerikako Idazkaritza Orokorrak eta Gobernuak izenpetutako lankidetzako esparru-akordioa garatzen parte hartu dugu. Akordioan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna jasotzen da lankidetza-esparru gisa.

Dominikar Errepublikako Herri Administrazioko Ministerioarekin lankidetzan aritu gara, UNMUNDO Dominikar Errepublikako emakume munizipalisten elkartearekin eta OSODORE herrialde horretako erregidoreen elkartearekin batera. Izan ere, udaleko eginkizun publikoaren profesionalizazioari buruzko jardunaldi batean izan gara, zeinean berdintasunaren alorrean diharduten langileak profesional bihurtzea ekarri duen profesionalizazio horren inguruko Euskadiko esperientzia azaldu, eta eragindako emaitza positiboen berri eman baitugu.

implementar el mainstreaming de género y Jornada online sobre la Campaña del Lazo Blanco.

Se ha continuado en los Comités de Seguimiento del Fondo Social Europeo (FSE) y del Fondo de Desarrollo Regional (FEDER).

Emakunde, como institución miembro de la Red de Políticas de Igualdad en los Fondos Estructurales promovida por el Instituto de la Mujer y por las Autoridades de Gestión de FEDER y FSE, ha participado en la 7ª Reunión del Plenario de la Red en Santander así como en los grupos de trabajo constituidos en el seno de esta Red.

De cara a reforzar la estrategia en materia de igualdad por parte de las entidades que desarrollan programas cofinanciados por ambos fondos tanto en el actual periodo de programación 2007-2013 como en anticipación del siguiente periodo 2014-2020, se ha proseguido la colaboración con Lanbide (Organismo Intermedio del FSE) y con la Dirección de Economía (Organismo Intermedio del FEDER). En el marco de esta colaboración se ha realizado una reunión interinstitucional al objeto de valorar la creación de un Grupo Técnico de Trabajo sobre la igualdad en los Fondos Estructurales.

Se han llevado a cabo diversas actividades en el marco de la **colaboración internacional:**

Se ha participado en la elaboración del Acuerdo marco de colaboración suscrito entre la Secretaría General Iberoamericana (SEGIP) y el Gobierno, en el que se recoge como una de las áreas de cooperación la igualdad de mujeres y hombres.

Se ha colaborado con el Ministerio de Administración Pública de la Republica Dominicana, en colaboración con UNMUNDO asociación de mujeres municipalistas dominicanas y OSODORE Asociación de Regidores y Regidoras del país, mediante la participación en una jornada sobre profesionalización de la función pública municipal en la que se ha dado traslado de la experiencia de Euskadi en esta profesionalización de la función pública municipal que ha traído aparejada una profesionalización de las personas que trabajan implantando la igualdad y los resultados positivos derivados de ello.